

7. Latina eta erromantzeak: hizkuntz ukipena eta mailegu geruzak

1.. Euskal substratua. 2. Mailegu geruzak. 3. Aldaketen kronologia

1. Euskara substratua

1.1. Substratua eta mailegutza

Euskal Herria historian sartzen denetik euskara ukipen egoeran bizi izan da garaian garaio hizkuntzekin: Erroma aurreko garaian (batez ere K.a. IV. mendetik aurrera) hizkuntza zeltekin (galiera, zeltiberiera) eta, zalantza handiagoz, IE ez den iberierarekin.¹ Erroma garaian (K.a. I. mendetik aurrera batez ere) latinarekin, eta honi esker utzi zituen euskarak lehen zeharkako lekukotasunak (K. o. I-III. mendeak). Azkenik, erromantze garaian (K.o. VIII. mendea baino lehentxeagotik) alde guztietatik inguratzen zuten eta duten hizkuntza erromantzeekin; haietako zenbaiti esker ere zeharkako lekukotasunak ditugu (IX-X. mendeetatik).

Ukipenaz hitz egiterakoan batez ere mailegutza pentsatu ohi badugu ere, ukipen egoera luzeak eragina izaten du hizkuntzaren maila guztietan, hotsetatik hasi eta sintaxiraino. Eta batez ere hizkuntza menderatzaileak hizkuntza menderatua izaten duen eraginean pentsatzen badugu ere, ukipenak norabide bikoitzeko ondorioak izaten ditu, nahiz eta, jakina, hizkuntzen estatus ezberdinaren araberrakoak izan. Honegatik, mailegutza gaineratik dauden bi kontzeptuz hitz egin behar dugu: substratuaz eta adstratuaz.

Adstratutzat hartzen dira beste hizkuntza batekiko ukipenetik datozen ezaugarriak; **substratutzat**, berriz, galduak hizkuntzak hizkuntza menderatzailean utzitako aztarnak.

Adibideekin hobeto ulertuko dugu. Betikora ez jotzearen, alegia, erdarek euskararen duten eraginean, euskal adstratuaz hitz egingo dugu lehenik. Euskal adstratua **dago** euskara-erdara elebitasun indartsua **dagoen** eremu guztietan. Adibidez,² Donostiako (eta bestetako) elebidunen ez ezik elebarrak askoren gaztelanian [j] hotsa sartu da euskaratik *goxua* eta *xirimiri* bezalako hitzen bitartez, eta batzuetan balio adierazgarria ere badu “Es un *xalado*”, “¿Qué *caxero!*”, “¿*Inoxente!*” eta antzeko esapideetan; halaber, errepikapenak balio indartzailea du: “Cuidado, que el café está *caliente-caliente*”; baina agian belarri erdaldunentzat ezaugarri nabarmenenak sintaktikoak dira, hala nola osagarri zuzeneko izenordainik eza: “¿Te *caliento?*” edo “No rompas, eh!” vs. gazt. “¿Te la *caliento* [la sopa]?” eta “No lo rompas [el juguete], eh!”.

Gaurko substratua antzinako adstratu egoera baten ondorioa da. Norberak hizkuntza berri bat ikasten duenean, nahi gabe ere bere ama-hizkuntzaren ezaugarri zenbait gailentzen zaizkio, esfortzu handiz baino ez dituenak bazterten hizkuntza berrian hitz egiterakoan. Hiztun kopuru handi batek hizkuntza menderatzailea ikasten duenean, eta azkenean hizkuntza hori bere egiten duenean, pentsatzekoa da euren ama-hizkuntzaren ezaugarri zenbait nahi eta nahi ez berrian islatuko direla. Hizkuntza menderatuak hizkuntza menderatzailean eragindako ezaugarri batzuek menderatua hil eta gero ere irauten dute. Esate baterako, lehenago esan dugu erromatarrak Galian K.a. I. mendean sartu zirela, eta galiera K.o. V. mende aldera galdu bide zela; beraz, sei bat mendez galieraz hitz egitetik latinez hitz egitera igaro ziren galiarrak gutxika-gutxika. Prozesu horrek iraun bitartean ezinbestean galiaradunek zenbait ezaugarri

¹ Cf. iberieraren egiazko hizkuntz eremu murriztagoaz eta haren balizko harremanetarako hizkuntza izaeraz aurreko kapituluaren esandakoak.

² Adibide guztiak Oñederra (2004)-tik hartuak dira. Berak gaztelaniaz darabilen <sh> grafema <x>ekin ordezkatu dut.

kutsatuko zizkioten Galiako latinari (adstratua) eta galiera hil eta gero ere haietako zenbaitek iraun dute (substratua): aipatu frantsesean iraun duten galierazko ehun bat hitz aipatzen dira, haien artean hainbat zuhaitz izen: esate baterako, *chêne* ‘arte’ (fr. zah. *chasne*) galierazko **cassanos*-etik letorke. Haatik, galiera “hondar-hizkuntza” bat da, ia arrastorik utzi gabe galdua; honegatik, galiar substratuaz hitz egiterakoan item lexikoak baino ezin aipa daitezke halako ziurtasun batez, eta hori ere hizkuntza zelta izateari esker: bestela nekez. Hauxe da substratuaren arazoa: susmatzen erraza bezain zaila dela zehazten. Baldin eta hizkuntza lekukotasunik utzi gabe hil bada edota aurre-IE bada, orduan substratuaren azterketa ezinezkoa bihurtzen da.

Euskara ere hainbat lekutan galdu egin da erromatarrak honaino etorri ziren garaitik aurrera. Beraz, euskal substratua **egon liteke** euskara **galdu den** eremu horietan. Alabaina, substratua, oro har, mundu labaina da, ikertzaile askok ukitu ere nahi ez dutena, maiz zerbait azaltzeko izan litezkeen azalpenetako bat baino ez baita, eta maizenik ahulena. Zehazki, hainbat arrazoik oso lainotsu bihurtzen dute euskal substratuaren azterketa: inguruko eta bertako erromantze zaharren eta leku haietako euskararen ezagutza eskasak edo ezak batik bat. Bestalde, eta ez da garrantzi gutxiko arazoia, euskararen barneko historiari behintzat gai honek ez dio aurrerapen handirik ekarri. Honegatik, euskal substratuari berpasatxo bat egingo badiogu ere (§ 2), maileguen azterketari eskainiko diegu arreta gehiena, zeren eta, jadanik dakigunez (cf. 4. gaia), berri gutxi dugun garaietan hizkuntzaren orduko egoeraz eta garapenez euskarri sendoak ematen baititu, baita kronologia erlatiboa lantzeko modua ere.

1.2. Euskal substratua inguruko erromantzeetan

Euskal substratuaz mintzatzeko ezarri behar dugu orduko Euskal Herri erraldoian hitz egiten zen latina era berezi batean aldarazi zuela euskarak, latinaren ondoko erromantzeen ezaugarrietako batzuk eragiteko moduan. Hau honela izatera, inplikaturako hizkuntzak hainbat dira: Hispanian gaztelania, Pirinioetan nafar erromantzea, aragoiera, aranera eta katalana, eta Galian gaskoia, hain zuzen.

Pirinioetako erromantzeen euskal substratuaz hitz egiteak urrutiegi eramango gintuzke. Esan dezadan bakar-bakarrik, katalanaren historialariek onartzen dutela:

Erromatarrak gero Catalunya izango den horren lurraldea hartzen hasi ziren garaian iberieraz mintzo zen populazio batekin topo egin zuten, salbu eta euskaldunak ziren Ribagortza-n, Pallars-en, Andorran eta Urgell Garaian.

(...)

Euskara ukipen zuzenean egon zen erromantze katalanarekin honen ipar-mendebaldeko muturrean VIII-X. mendeak arte. Izan ere, Pallars ez zen erromantzatu garai karolingioa arte, eta Ribagortzaren erromantzatzea ere, goi-haranetan gutxienez, ez da osatuko garai horixe arte, hau da, 806. urtean lurralde hauek Tolosako markeserrian sartuz geroz.

(...)

Oraindik badira euskal aztarnak lurralde hauen gaurko lexikoan, hala nola *gallorsa* ‘mendiko herri-artaldea’, eus. *gallor* ‘gailurra’-tik hartua, eta batez ere toponimian (*Urgell*, *Arote*, *Arinsal*, *Bixessarri*, etc.), Pallarsen batik bat (Ferrando & Nicolás 2011: 73-74; nik itzulia).

Halaber, Manuel Sanchis Guarner-ek (1956) substratuari egotzi zion katalanaren bi dialekto nagusien —mendebaldekoa eta ekialdekoa— zergatia, mendebaldekoek substratu aurre-IE zutela (iberiera hegoaldean, euskara iparraldean) eta ekialdekoek substratu IE (zehazki zeltera) zutela argudiatuak. Dialektologoen alde batera utzi dute teoria hau, ordea:

Teoria hau Erroma aurreko populazioaz Pere Bosch i Gimpera historiaurrelariak egindako ikerketa arkeologikoetan oinarritzen da. Azterketa arkeologiko berriagoek erakutsi dute, ostera, mendebaldean badirela populazio zeltak eta ekialdean populazio iberiarrak. Beraz, ez alde batean ezta bestean ere ezin daiteke kultura bakar batez hitz egin, zeren eta bietan populazio ezberdinen aztarnak aurkitzen baitira, eta honegatik substratuaren teoriari bere oinarriak berak huts egin dio (Veny & Massarell 2015: 106; nik itzulia).

Kontu nahasiak dira, beraz, iberiera eta zelterarena Calanunyan; euskal kontuan, berriz, Erdi Aroko euskaraz jarduterakoan sakonduko dugu (ik. 9. gaia).

1.2.1. Euskal substratua Hispanian

Gutxienez Behe Erdi Arotik aurrera jakintsu askok aldeztu zuten euskara zela Penintsulako lehen hizkuntza —Tubalek ekarria— eta hizkuntza bakarra, eta honek animatu zituen horietako batzuk —gureak barne: Garibai, Etxabe, Poza, Larramendi...— euskararen antzinako hedadura haren aztarnak bilatzera: hauxe da “euskoiberismo” izena ematen zaion teoriaren formulazio zaharrena (ik. 3. gaia). Penintsulan hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten zirela ezarri denetik, ostera, Erroma aurreko substratuaren gaia gai konplexu bihurtu da: hizkuntza haietaz zenbat gehiago jakin, hainbat eta ez dakigunaren zuloa handi eta zabalago.

Garai hartako hizkuntzak txarto ezagutzen ditugu, eta apika ez ditugu ziren guztiak ezagutzen. Haien mugak nekez bai nekez ezar litezke. Iberiera ere, Penintsulako lurralde zabal bateko hizkuntzat hartetik harremanetarako hizkuntza baino ez zela pentsatzera igaro dira aditu batzuk, dakigunez (cf. 6. gaia). Beraz, izan baziren latin aurreko hizkuntza haiek, eta ziurrenera eraginena bat utziko zuten Penintsulako erromantzeetan, baina, gauzak horrela, hizkuntz historialari gehienak hanka-puntetan igarotzen dira substratuaren gai honetatik:

Zentzuzkoa da Penintsulako erromantzeen —eta zehazkiago espainolaren— ezaugarri batzuk Penintsulako latinaren substratua izan ziren hizkuntzekin lotuta egotea azken batean, baina ez da erraza frogatzen (Correa 2004: 49; nik itzulia).

Izan ere, hizkuntz oinarriak —guri benetan interesatzen zaizkigun bakarrak— oso eskasak dira. Lapesak (1984: 46-48) Erroma aurreko balizko substratutik letozkeen hitz gutxi batzuk aipatu zituen:³ adibidez, substratu aitzinzeltari edo zeltari egotzi zizkion *álamo*, *berro*, *puerco*, *toro*, *colmena*, *baranda*...; zehaztu gabeko Erroma aurreko substratuari *abarca*, *barraca*, *barro*, *charco*, *nava*, *perro*, *silo*, *sima*..., eta euskal substratuari *vega*, *vilorta*, *pestaña*, *ibón*, *sarrío*...⁴ Euskarazkoari egotzitako hitz batzuek euskalariori sortzen diguten harridura ez da txikia: esaterako, CVCV den *vega* hori aitzineuskaraz nola azaldu? Bestalde, historiografiari erreparatzen badiogu, kontua da *vega*-ren euskal etimologia Larramendirena dela, eta etimologian oinarrituta euskal hitzen artean sartu zuela bere hiztegian:

Vega, es voz bascongada *bega*, *beguea*, y se dixo, o de *bera* ‘tierra baxa’, como lo es la vega, o de *be* y *guea*, y quiere dezir ‘sin hoyos ni profundidades ni baxos’, qual es la vega, que es tierra llana y baxa. *Bega*, *irura*, *ibarra*” (Larramendi 1745, s.v.).

Hauxe da Corominasen azalpena:

Procede prob[ablemente] de una palabra prerromana *baika* ‘terreno regable y a veces inundado’, deriv. de *ibai* ‘río’, hasta hoy conservado en vasco; con otra formación el alto-arag. *ibón* ‘lago’. Se trata seguramente de un deriv[ado] formado por medio del sufijo vasco *-ko*, *-ka*, que indica pertenencia (Corominas 1976, s.v.).⁵

Larramendiren etimologia izateak ez du esan nahi ezinbestean okerra denik, jakina, baina euskalariari Corominasen azalpenak ere zalantzak sortuko dizkio (erreparatu “*-ko*, *-ka* que

³ Ziurrenik Corominas & Pascual-en *Diccionario Crítico Etimológico de la lengua castellana e Hispánica* (DCELCH; 1980) hiztegi etimologikotik bilduko zituen, hots, gaztelaniaren hiztegi etimologiko osoen eta onenetik. Izan ere, Corominasek (eta berdin haren ikasle eta laguntzaile Pascualek ere), lan kritiko zorrotzari muzin egin gabe, euskal substratuaren aukeraren aurrean beste batzuk baino nahikoa jarrera irekiagoa izan zuen.

⁴ Harrigarriki, ez du aipatzen (oker ez banago) denetan ospetsuena: *izquierda*. Arrazoia da Corominasen hipotesiaren arabera hitza bisigodoen garaian hedatu bide zela. Hauxe dio Corominasek (1976, s.v. *izquierdo*): “Vocablo común con el portugués (*esquerdo*), catalán (*esquerre*), gascón (*querr* o *esquerr*) y languedociano (*esquer*, *-rra*). Del mismo origen que el vasco *ezker(r)* íd. Probablemente procede de una lengua prerromana hispano-pirenaica, y es verosímil que el vocablo se extendiera desde una zona de lengua vasca en la época visigótica”. Ondoren eus. *esku*-rekin lotzen zuen balizko euskal etimologia “*ez*-ziurtzat” ematen du. Gaur egun, **ger* erroaz osatutako hitzat joko genuke eta, zehazkiago, **hertz* + *ger* proposatu du Lakarrak (2010: 204, 40. oh.), hots, “lengua prerromana hispano-pirenaica” hori euskararekin ordezkatzeko paradan gaude.

⁵ *Baica* eta *vaiga* lekukotuta daude X-XI. mendeetan (Lapesa 1984: 47).

indica pertenencia” horri). Gaztelaniaren lexikoan omen dauden euskaratiko hitzen gai nahasi honetan sakondu nahi izanez gero, ikus Gorrochategui (2012).

Are nahasiagoa da oraindik toponimiaren gaia, tubalistengandik gaur arte euskal substratuaz azaldu nahi izan diren leku-izenak ehundaka dira eta: bat baino ez aipatzearen, oraindik ere batzuek Galiziako *Iria Flavia*-ko (A Coruña) lehen izena —*Flavia* izen bereko familia erromatarrari zor zaio, noski— eus. *hiria*-rekin lotzen dute, geografiaren aldetik horrela ez dela begien bistakoa izan arren. Geografian gelditu gaitezke, aski eta sobera izan beharko litzatekeelako, baina hizkuntzaren aldetik ere berdin (eta, jakina, haxe da guri gehien axola zaigun argudioa): erreparatu *-a* artikuluari, K.o. 74. urtean erromatarrek hiri hori *municipium* izendatu zutenean jadanik gramatikalizatutzat eman beharko genukeena, nahiz akitanierazko lekukotasunek horrelakorik behin ere agertu ez. Izan ere, segurtasun handiz Erdi Aroko berrikuntzatzat dugu artikulua (honen sorreraz, ik. 9. gaia). Artikuluduna litzateke, halaber, Extremaduran aurkitutako idazkun bateko *Ibarra* ospetsua:

LVCIVS IVLIVS IBARRA, LASCIVVS fil.

Hain urrun joan gabe ere, eztabaidatsuak edota ilunak dira batzuetan toponimoak Erroma garaiko Euskal Herri erraldoi hura noraino zabaltzen zen zehazteko, bai Kantabria aldetik, baita Catalunya aldetik ere. Eta, are garrantzizkoago, ez gaude ziur euskal toponimoak izatekotan Antzinatekoak diren ala Erdi Arokoak baino ez. Gai honetaz zertxobait gehiago hitz egin ahalko dugu Erdi Aroz mintzatzerakoan (9. gaia).

Nolanahi ere den, gaztelaniaren euskal substratua —gehiago interesa dakizkigukeen hizkuntz alderdietan— hispanistek aspaldi aipatua eta aztertua izan da (Menéndez Pidalek, Corominasek...). Azkenotan substratu horren aldeze handiena den Echeniquek honela dio:

...haren eragina aitortzen da lehen begiratuan gutxi eta garrantzi gutxikoak diruditen, baina egiatan garrantzi handikoak diren gertakarietan, zeren hizkuntza erromantzeen artean gaztelaniak duen berezitasuna eurek emana baita. Batez ere gertakari fonetikoak dira (Echenique 2005: 80; nik itzulia).

Substratuzko gertakari horiek zertan dautzan azaldu baino lehen, jakin behar dugu gaztelania non uste duten jaio zela.

1.2.1.1. Gaztelania non jaio zen?

Ika-mika ederrak egon dira gai honen inguruan, erkidego bik —Gaztela eta Leon batetik, Errioxa bestetik— aldarrikatzen baitute gaztelaniaren sehaska izan izana, biek ala biek uste baitute hizkuntza horren lehen lekukotasunen jabe direla. Hizkuntzalariaren ikuspegitik eztabaida antzua da, erromantzeak ez baitziren leku bakar batean jaio: latinaren lekuan lekuko bilakabidearen ondorio dira eta, hori ez ezik, lekuan lekuko eta garaian garaiko joera lektalen ondorio ere bai. Gaztelak estatus eta autonomia politikoa erdietsi ahala eratuz eta finkatuz joan zen gaztelania, eta Gaztelaren lurraldea zabaldu ahala bera ere zabaltzen, berak ere estatus eta autonomia lortzen eta inguruko hizkerak aldarazten eta irensten: nafar-erromantzea bera, adibidez. Dena dela, komeni zaigu jakitea lekukotasun horiek ez direla horren berme onak ere.

Gaztelaniaren sehaskatzat bere burua aldarrikatzeko Errioxak Donemiliagako glosak ditu (X edo XI. mendekoak, ez dago garbi). Adituen ustez, ordea, ezin esan daiteke glosetako erromantze goiztar hori gaztelania denik. Batzuen iritzian argi dago nafar-erromantzean idatziak direla (haren errioxar aldakian, nahi bada), normala den bezala, XI. mendearen bukaera arte Errioxa Nafarroako erreinuaren parte da eta (cf. González Ollé 1970: 55; Lapesa 1984: § 41). Azkenotan honela azaldu du Bustos-ek (2004: 304), esate baterako, glosetako hizkera sailkagaitza:

Batzuek uste dute aragoieraren ezaugarriak gailentzen direla (...), baina beste batzuen iritziz (...) aski da Errioxako dialekto primitiboari egozte. Gaztelaniaren ezaugarri eskusiboak ere badaude. Honek guztiak pentsarazten digu (...) hizkuntz koine bat dela egiazki, gaztelaniaren, Errioxako dialektoaren eta aragoieraren ezaugarriak nafar erromantzearen ezaugarriekin nahasten dituen. Bi faktoreri zor zaio: 1) Errioxa trantsizio gunea izateari: bere dialekto propioa izan zuen, gaztelaniarekin eta aragoierarekin partekatutako ezaugarriak zituen, XII eta XIII. mendeetan

zehir gaztelaniatzearen eraginez desagertuko bazen ere, eta 2) X eta XI. mendeetan dialektomugak zehatzak ez izateari (Bustos 2004: 304; nik itzulia).


Gaztela eta Leonek, berriz, Valpuestako kartularioak ditu: *Bezerro Gotikoa* eta *Bezerro Galikanoa*.⁶ Latinez idatzi nahiz egindako testuak izan arren, erromantzearen ezaugarriak itzuri zitzaizkien idazleei (cf. Ramos 2000). Agiri bilduma XII. mendekoa da, baina agiri batzuk IX. mendekoen kopia omen: hau honela balitz, alde handiz gaztelaniaren lehen lekukotasunak lirarteke. Alabaina, Erdi Aroko dokumentazioan faltsutzeak ugari baino ugariago dira, zeren eta idazkerak garrantzia berreskuratu zuenean monasterioek-eta euren jabetzak egiaztatzen zituzten agiriak batzeari eman baitzitzaizkion, eta batzuetan beharra izanez gero baita faltsutzeari ere. Valpuestako agiriak ere ez dira arazo honetatik libratu:

En total el *Becerro Gótico* está formado por 178 documentos (...) cuyas fechas oscilan entre el 804 y 1140 (...). Si nos atenemos a las mencionadas fechas podemos pensar que nos encontramos ante el cartulario más antiguo de estas características en el ámbito hispánico, y aún *si las fechas más antiguas correspondieran a falsificaciones posteriores, como es probable*, la importancia y la antigüedad del cartulario sigue siendo indudable (Ramos 2000: 25; etzana nirea).

Duela urte gutxi batzuk gai honetaz egin ziren jardunaldietan (*Valpuesta, en los orígenes del castellano*, Miranda de Ebro, 2008ko urriaren 14-16), paleografoek-eta argi utzi zuten IX. mendekotzat eduki zitezkeenak egiatan XII. mendekoak direla eta, beraz...

Valpuestako harana Burgosko probintzian dago gaur, baina erdi-mendebaldetik Araban —zehazkiago Gaubean— sartzen den ziri baten antzekoa da, Gasteiztik 45 kilometrotara. Donemiliagako monasterioa, berriz, Arabaren hegoaldean dago, Gasteiztik 80 bat kilometrotara. Zergatik aipatzen dut Araba behin eta berriz?

Gaztelaniaren sorrera Gaztelako konderriaren sorrerarekin dago lotuta, eta azken batean Fernán González haren lehendabiziko agintari esanguratsuekin, konderriaren nolabaiteko autonomia —betiere Asturiasko erregearen azpian— lortu omen zuen lehenengoarekin. Baina, zein lurraldez ari gara? Lehenik eta behin Kantabria,⁷ Palentzia eta Burgos aipatu behar; baina ez hori bakarrik, baita garai hartan Fernán Gonzálezek agintepean egon zen Arabako konderria ere.⁸ Hona hemen 930. urtean Gaztelako konderria osatzen zuten lurraldeen mapa (iturria: *Wikipedia*, s.v. *Condado de Castilla*):



⁶ *Kartulario* edo *bezerro* hauxe da: “Elizek, monasterioek eta komunitate batzuek beren erregaliak eta beren jabetzen eskriturak kopiatzen zituzteneko liburua” (*DRAE*, nik itzulia).

⁷ Mapan dakusgun “Asturias de Santillana” hori gaurko Kantabriako erdialde eta mendebaldeko lurrek osatzen zuten.

⁸ IX eta X. mendeetan Arabako eta Gaztelako konderriak Asturiasko erreinuaren ekialdeko “marka” edo muga egiten zuten musulmanek etengabe egiten zituzten erasoen aurka. Bidean, Fernán Gonzálezek semea Iruñeko errege-erreginen Santxa infantarekin ezkondu zenez geroztik Arabako konderria alde hartara makurtzen hasiko da (XI. mendean), eta gero berriz beste aldera, XIII. mendearen hasieran behin betiko Gaztelapean jarri arte.

Honela diosku Echeniquek:

...el condado de Álava regido por Fernán González y sus sucesores comprendía bajo esa denominación no sólo las tierras que hoy decimos alavesas, sino también toda la actual provincia de Vizcaya y un valle de la guipuzcoana, el regado por el río Deva; los condados de Fernán González y sus descendientes lindaban con tierra del rey de Navarra desde el mar hasta la geografía soriana. No hay que olvidar, pues, la unión de Castilla y Álava en la lucha reconquistadora, que vuelve a poner en relación unos y otros territorios históricos (Echenique 2004: 66).

Echenique iradokitzen ari da gaztelania euskal lurretan jaio zela, orduan Bizkaia, Araba eta Burgosko ipar-ekialdea bederen hartuko zuen mendebaldeko Euskal Herri zabalago hartako hiztun elebidunen artean edo. Honek azalduko lituzke, jakina, gaztelaniak omen dituen euskal substratuko ezaugarriak, nortasun berezia ematen diotenak. Are argiago:

El influjo vasco sobre el romance remonta presumiblemente a los orígenes románicos, pues hay manifestación clara de su presencia en documentos de los primeros tiempos. Tal es el caso, en área castellana, de documentos de la iglesia de Valpueda (Burgos), que muestran abundantes vasquismos ya en el siglo X (*anderazo*, *anderazu*, año 950; *anderaza*, año 984-995; *ozoa*, año 950; *muino*, *Velaza*, año 950; *jaunso*, año 956; *abayza*, año 964-984, etc.),⁹ a lo que hay que añadir las bien conocidas *Glosas emilianenses* (...). Sí cabe decir, en todo caso, que la posible influencia ejercida en época medieval en los romances pirenaicos catalán, aranés, aragonés y gascón-occitano se diluyó conforme el vascuence iba retrayéndose a los límites actuales, en tanto su acción sobre el castellano fue más general, dado su nacimiento en zona de estrecho contacto con la lengua vasca, así como más duradera. No obstante, tras el ensanchamiento emprendido por el español hacia el Centro y el Sur peninsulares, la influencia vasca pasó a ser periférica (...) (Echenique 2005: 76-77).

Laburbildurik, Echeniqueren ustetan, gaztelania euskararekiko ukipen estua zegoen lurraldeetan jaio eta luzaz ukipen horren eragina pairatu zuen, are Pirinioetako gainerako erromantzeek baino luzazago. Honegatik, bada, suposatu behar dugu substratuko gertakariak inon baino nabarmenagoak izango direla.

1.2.1.2. Euskal substratuko ezaugarriak gaztelanian

Honako hauek bildu ditu Echeniquek (2004: 71-74 eta 2005: 80-82) aurreko ikertzaileengandik:

- Bokalismoa (5 bokal baino ez izatea)
- Diptongatzea: lat. *ě* (laburra) > *ie*, *ǫ* (laburra) > *ue*
 lat. *ventu* > gazt. *viento* ‘haizea’, lat. *herba* > gazt. *hierba* ‘belarra’
 lat. *costa* > gazt. *cuesta* ‘aldapa’, lat. *forte* > gazt. *fuerte* ‘indartsua’
- Betazismoa, hau da, /b/-/v/ oposaketarik eza
- Txistukari ahostunen desfonologizazioa, hots, ahostun/ahoskabe oposaketaren galera. Gaztelaniazko txistukarien bilakabidearen lehen urratsean gelditu hiru hotsak euskarazkoekin bat datoz oro har, nahiz gero zeinek bere bidea hartuko zuten, hurrenez hurren gaurko gazt. [ø], [š] eta [x] emanik:¹⁰
 - ✓ [ts] ahoskabea + [dz] ahostuna > [ts]¹¹
 - ✓ [š] ahosk. + [ž] ahost. > [š]¹²

⁹ Letra xehez emanak badira ere, ulertu behar dugu pertsona izenak direla (*Anderazo*, *Jaunso*, *Ozoo...*). Antroponimo hauetaz gehiago jakin nahi izanez gero, ikus Ramos (2010).

¹⁰ “La teoría tradicional, mantenida principalmente por A. Martinet (1951-1952 y 1974) y F. H. Jungemann (1955), sostenía que la pérdida de sonoridad de las sibilantes tenía su origen, hacia finales del siglo XV o principios del XVI, en el norte de Castilla, debido a la influencia del sustrato vasco, que carecía de sibilantes sonoras” (Marcet 2011: 45). Ondoko lerroetan beronek azaltzen du teoria kolokan jarri dutela hispanistek, nafar-aragoieraren, astur-leonesaren eta galegoaren adibide ugari eta goiztarrengatik.

¹¹ “Predorsodentoalveolar” omen dira atal honetako bi hotsak eta, beraz, gaztelania zaharreko [ts] hura ez dakit zehatz esaten gure [ts] edo gure [tš]-ren antzekoagoa zatekeen; dena dela, hispanistek entzunda eta, uste dut [ts]-ren antzekoagoa zela.

- ✓ [ʃ] ahosk. + [z] ahost. > [ʃ]
- /f/ > /h/ > ø / # — (lat. *farina* > gazt. *harina*)
 - Bokal protetikoa / # R — (*arrepentirse*, lat. *repae nitere*)

Euskalaritzaren ikuspegitik ez dugu eragozpenik, dakidalarik, bokalismoa, betazismoa, bokal protetikoa eta txistukarien desfonologizazioa onartzeko. Eztabaida ditzagun beste biak polikiago. Hasteko, lehen begiratuan harrigarria da gaztelaniaren diptongatzea euskal substratuaren bitartez azaldu izana, euskaraz diptongatu gabeko formak gorde ditugunez gero: lat. *rota* > eus. *errot* vs. gazt. *rueda*, lat. *fortis* > eus. *bortiz* vs. gazt. *fuerte*, etab. Alarcos Llorach-en hipotesia da, eta berak honela azaltzen du:

Podemos suponer que en las regiones donde más tarde se desarrollarían los dialectos con diptongación, se hablaban lenguas cuyo sistema vocálico —como el vasco actual— distinguía tres solos grados de abertura e ignoraba la cantidad vocálica. En los primeros contactos con el antiguo sistema latino cuantitativo, los indígenas identificarían sin más las largas y las breves correspondientes (como ocurre en los vocablos latinos que penetraron en el vascuence). Cuando en el latín hablado se generaliza el sistema cualitativo con sus cuatro grados de abertura, los indígenas tenderían a igualar los dos grados intermedios latinos con el único suyo; pero tras siglos de romanización constante y más o menos eficiente, llegarían a advertir la distinción entre *ĕ/ē* y *ō/ō*, aunque sin conseguir su reproducción exacta (Alarcos Llorach 1981 [1950]: § 143, 218-221).

Funtsean, bada, latin oposaketa ahoskatzen ikasi nahirik “indigenek” indarrez ahoskatuko zituzten *ĕ* eta *ō*, eta hortik letozke geroko diptongoak. Gure aldetik, nekez sinets dezakegu balizko indigena elebidun horien euskaran batere eraginik izan ez zuen heinean; nolana ere, diptongazioa eragin omen zuten indigena haiek ordurako elebakarrak izan balira, euskararekin zeharka agian, baina zuzenean zerikusirik ez lukeen prozesua litzateke, bistan denez.

/f/ hotsaren hasperenketa eta geroko desagerpena hitz hasieran aspaldi lotu zuen Menéndez Pidalek (1950 [1926]: 519) euskararekin. Hots aldaketa horren hasierako gunea Burgosko iparraldean, “La Montaña de Santander” eta Errioxa, “zonas todas ellas próximas a la de habla vasca” (Echenique 2004: 72). Alde eta kontrako aditu askotxo egon dira, baina Echeniquek berak ez du uste euskal datuak garbi egiten dutenik horren alde.¹³ Areago: guretzat, ondo dakigunez, lat. *fagu*, *fauea*, *ferme*, *fortis* > eus. *bago*, *baba*, *berme*, *bortiz* adibideek erakusten duten ordezkatzeari dateke lat. /f/-aren euskal emaitza zaharrena eta, horregatik beragatik, Lakarrak (2015: 362-364) berriki eratu duen hipotesiaren arabera lat. *f* > eus. *h*-ren ustezko adibideak egitan lat. *f* > errom. *h* > eus. *h*-ren adibideak lirakeke, gaskoiarenak bai behintzat (cf. 5. gaia). Orduan, bitatik bat: edo ez da euskal substratuaren eraginpeko kontua, edo gure kronologiak (1. lat. *f* > eus. *b*; 2. errom. *h* > eus. *h*) huts egiten du.

Bokalismoaren gaiak ere merezi du pare bat hitz. Latinak bereizten zituen hamar bokalak, luze/labur oposaketan oinarrituak, inguruko beste erromantze batzuetan ez bezala (frantsesak, katalanak, italierak-eta zazpi bokaleko sistemak dituzte, ireki/itxi oposaketan oinarrituak), gaztelaniaz bost bokaletara bildu ziren, gerotxoago ikusiko ditugun hots-aldaketen bitartez. Trasken iritziz (1997: xxxx) bost bokal dituzten munduko hizkuntzak asko izanik, ez dirudi substratuaren eragina bermatzeko moduko ezaugarria denik. Echeniqueren ustez, aldiz, batak ez du bestea kentzen (Echenique 2004: 72). Egitan, nire ustez, gaztelaniaz ez ezik, aragoieraz, gaskoiaz eta are katalanaren mendebaldeko dialektoan ere bost bokal egotea bada argudio sendoagoa euskal substratuaren alde egiteko.

¹² [ʃ] jarri dut, eta ez [s] Echeniquek bezala, gure ohituraren arabera, eta gure [s] hotsarekin ez nahasteko.

¹³ Nahasitxo aurkezten ditu, nire ustez. Datu bat behintzat zuzentzekoa da: iradokitzen duen lat. *pullu* > eus. *ollo* —esplizitatzen ez duen eus. **hollo* (i?) batetik igarorik— ezinezkoa da, mailegu erromantzetzat baitugu —gast. *pollo*-rekin lotutakotzat, alegia—, lat. *ll* > eus. **L* > *l* bilakaera zaharrea ez bezala (gogoratu lat. *ballaena* > eus. *balea*) eus. *ll* berankor —eta, beraz, erromantze— horregatik (ik. Mitxelenaren iruzkina, ap. Arbelaitz 1978, s.v. *ollo*). Gainera, **h*- egon izan balitz, zubereraz behintzat mantenduko zen.

1.2.2. Euskal substratua gaskoian

Gaskoiniaren mapari begiratzea aski da Antzinateko Akitania eta geroko Gaskoinia bat direla konturatzeko:



Kidetasun hau lehenengoz agerian jarri zuen Luchaire jakitunak zioenez: “Gaskoiak, azken batean, hauxe baino ez dira: latinak konkistatutako akitaniarrak, latinez hitz egiten jarritako akitaniarrak, eta beren lehen hizkuntzaren ezaugarri zenbait gorde dituztenak latinez mintzatzeko moduan” (Luchaire, *Origines*, 1877: 69, ap. Rohlfs 1977 [1935]: 19).

Ez dakigu zehazki noiz galdu zen akitaniera Akitania (hots, Gaskoinia) gehiengan, gaurko Ipar Euskal Herrira mugatuta gelditzeraino, baina badirudi goiz xamar izan zela, Goi Erdi Aroan inondik ere. Franko merovingiarrek bertako biztanleak (orduko iturriek *Wascones* eta *Vascones* izena ematen diete) menderatzeko izan zituzten arazoak zirela eta ez zirela, Baskoniako dukerria (*Dux Wasconiae*) sortu zen 601-602. urteetan. Garona ibaitik hasita, dukerria Pirinioetarantz hedatuz joan zen 635. urtearen bueltan eta ondoren tarteka Pirinioaz bestaldeko lurak ere hartu zituen. Frankoek, bestalde, Loira eta Garona ibaien arteko Akitaniako dukerria sortu zuten (630). VIII. mendearen hasieran, dukerri biak batu egin ziren batzuetan, musulmanen inbasioa galarazteko. Baskoniako dukerria Gaskoinia (*Wasconia*-tik sortua)¹⁴ bihurtu zen gero XI. mendean.

Gerhard Rohlfs (1892-1986) izan da oraintsu arte gaskoiazko aditurik handiena, batez ere bere *Le Gascon* obra ezinutzizkoagatik (1977 [1935]). Berak euskararekin lotzen ditu gertakari fonetikoak (gogora dezagun gorago aipatu bokalismoa ere, bidenabar):

1.2.2.1. /f/ > /h/ / # —

- gask. *hèt*, gazt. *hecho* ‘egina’ < lat. *factu*
- gask. eta gazt. *haba* ‘baba’ < lat. *faua*
- gask. *hartá*, gazt. *harina* ‘irina’ < lat. *farina*
- gask. *hourca*, gazt. *horca* ‘urka’ < lat. *furca*

Menéndez Pidalekin bat dator Rohlfs (1952: 68) ahoskera hori Euskal Herriaren mugakide diren bi lurraldeetan —Gaztelan eta Gaskoinian— sortu izana ezin dela kasualitatea izan. Honetarako hurrengo euskal kognatuak ematen ditu, non *h* > \emptyset dugun hitz hasieran:

- eus. *iko* < lat. *ficu*
- eus. *irin* < lat. *farina*¹⁵
- eus. *ondo* < lat. *fundus*

¹⁴ “Le passage du [v] initial à [w], passé par la suite à [g^w] puis [g], traduit une influence germanique sur la consonne initiale” frantsesezko Wikipedia (s.v. *Gascogne*).

¹⁵ Hau behintzat ez da batere ziurra, hasperen ezak (cf. Mitxelena *FHV* 81) eta *irin/urun* aldaerek beste etorki bat —ondare zaharreko hitza izatea?— iradokitzen baitute.

eus. *urka* < lat. *furca*
 eus. *usta* < lat. *fustis*¹⁶
 eus. *urkil* < lat. *furcilla*¹⁷
 eus. *eme* < lat. *femina*
 eus. *ermo* < lat. *fermus*

Dena dela, gaskoian *f*-aren galera gaztelanian baino orokorragoa izan da, bai hitz barruan bokal artean (a), baita are *r* aurrean ere gertatu baita (b):

(a) **buffare* > *bouhà* (cf. eus. *buhatu* mailegu gaskoia)
 (b) *afr-* > *ahrountà*, *arrountà*...

1.2.2.2. *n* > \emptyset / V — V

gask. *lúa* vs. gazt. *luna* ‘ilargia’ < lat. *luna*
 gask. *pléa* vs. gazt. *llena* (*plena* kultismoa da) ‘betea’ < lat. *plenu*
 gask. *la* vs. gazt. *lana* ‘artilea’ < lat. *lana*

Gaztelanian ez badago ere, Rohlf's-ek (1952: 68) gogoratzen du galera bera gertatu dela Penintsulako ipar-mendebaldean: port. *cadea* ‘katea’, Galizia eta Asturiasko mendebaldean *cadia* ‘katea’, *lla* ‘artilea’, etab. Hauxe da bere ondorioa: “Aquí tampoco cabe duda sobre una posible relación entre el gascón y los idiomas hispánicos, a pesar de la actual discontinuidad geográfica” (*loc. cit.*; azpimarra nirea da).

1.2.2.3. *R* aurreko bokal protetikoa

Gaskoiaz *a* bokal protetikoa ezarri zaio jatorrizko *r*-ari hitz hasieran, gaztelaniaz baino nahiko maiztasun handiagoz:

arròda ‘arrobera’ (< lat. *rota*) vs. gazt. *rueda*
arríde ‘barre egin’ (< lat. *ridere*) vs. gazt. *reir*
arrày ‘arraia, marra’ (< lat. *radia*) vs. gazt. *raya*
arrát ‘sagua’ (jatorri ezezagunekoa; cf. gazt. *rata*, fr. eta ing. *rat*, etab.).

Ohartzekoa da, dena dela, euskaraz bi bokal erabili direla protetiko gisa, *a* eta *e* (cf. *arratoi*, *arrazoi* vs. *errege*, *erramu*). Dakidalarik, inork ez dio bilatu bikoiztasun horri arrazoirik (cf. Mitxelena *FHV* § 17.4), baina izan beharko luke, edo dialektala, edo kronologikoa.

1.2.2.4. *mb* > *m*

Erdi Aroan Catalunyara, Ebrotik gorako Aragoiko partera, Burgos eta Kantabriara mugatuta dagoela dirudi, eta Gaskoinian ia lurralde osoko gertakaria da (Rohlf's 1952: 69). Akitanieran ezagutzen dugu (gogora **onbe* > **umme* > eus. *ume*) eta latinetiko mailegutan ere antzeman daiteke:¹⁸

eus. *imutu* (G), *imitu* (V-gip, G, L-ain, S) < lat. *imbutu* (gast. *embudo*)
 eus. *komentu* < lat. *conventu* (gast. *convento*)

1.2.2.5. Lurralde osokoak ez diren fenomenoak

1.2.2.5.1. Herskariak ahostundu sudurkari ondoan

Pirinioen bi aldeetan, Goi Aragoiko eta Gaskoiniako (hemen zehazki Aspe, Barétous eta Ossau-n) haran batzuetan gertatzen da (Rohlf's 1952: 69). Adibidez, *Cambo* leku-izena (eus. *Kanbo*) lat. *campu*-tik dator (gast. *campo*, fr. *champ*). Hona hitz arrunt batzuk, gaztelaniazko kognatuen parean:

gask. *blanga*, gast. *blanca*
 gask. *endéne*, gast. *entender*

¹⁶ *OEH*-n (s.v. 1 *usta*) Azkueren hiztegiko erreferentzia baino ez dago: “(V-ger [hots, Gernika aldeko bizkaiera], fusta, látigo)”.

¹⁷ Egiatan *urkila* da, berezko *-a-z*, lat. *furcilla*-k iradoki bezala: Azkueren arabera *urkila* (V-gip, G, L) da.

¹⁸ Betiere *nb*-dun aldaeren alboan (cf. *OEH*, s.v. *inbutu* eta *komentu*): *nb* aldaerak berriagoak bide dira, erromantzearen etengabeko presentziaren lekuko.

gask. *endrá*, gazt. *entrar*
 gask. *mendí*, gazt. *mentir*
 gask. *candá*, gazt. *cantar*

1.2.2.5.2. Herskari ahoskabeak gorde bokal artean

Erromantzez oso-oso bitxia den gertakari hau (gainerakoan ahostundu egin baitira) Aragoi Garaiko zein Gaskoiniako eremu zabal batean kokatzen du Rohlfs-ek (1952: 70), honetan euskararen lekukotasuna aipatzen ez badu ere:

arag. *ripa*, *capeza*, *apierto*, *tota*, *muta* vs. gazt. *riba*, *cabeza*, *abierto*, *toda*, *muda*
 gask. *hata*, *mutá*, *natá*, *escoupa* vs. gazt. *hada*, *mu²dar*, *nadar*, *escoba*

1.2.3. Ondorioak

Dударик gabe, Pirinioen bi aldeetako mintzoak elkarrekin hartzen dituen Rohlfsen ikuspegia askozaz ere sendo eta erakargarriagoa da. Ikuspegi horretatik, euskal substratuaz hitz egitekotan badirudi bi geruzaz —eta beraz, bi garaiz— behintzat hitz egin litekeela euskararekin partekatzen dituzten ezaugarriak dagokienez:

1. Zabalenean, ezaugarriak Pirinioen bi aldeetako erromantzeetan dira, batzuetan are gaztelania(zaharr)ean ere (bokalismoa, bokal protetikoa, $mb > m$).
2. Hertsienean, Gaskoiniako eta Aragoi Garaiko zenbait hizkeratan bakarrik ($p,t,k > b,d,g / n$ — eta p,t,k gorde / V — V).

Lehendabiziko geruza Erroma Garaiko eta Goi Erdi Aroko Euskal Herri “erraldoiarekin” lotzekotan, bigarren geruza euskararekin luzazago izan diren hizkerekin lotu beharko genuke.

Dena dela, substratuaren kontua bistan da erromanista eta hispanisten kontua dela, eta esan behar da euskalariak ez direla gehiegi kezkatu kontu hauengatik, gurekin ez balihoaz bezala edo. Euskalaritzaren ikuspegitik gertakariok gure hizkuntzaren historiaz zer esaten diguten (ezer esango badigute) aztertzen ez dugun bitartean, bide hau itxia da guretzat. Zeren eta, aipatutako ezaugarriak dagokionez, nork daki benetan zeinek zeini zer eman dion?

2. Mailegu geruzak

Dakigunez, edozein hizkuntz egoeratan aurreko hizkuntz egoeren aztarnak aurki daitezke. Kontua da batzuetan aurreko hizkuntz egoera baten baino gehiagoren aztarnak suma daitezkeela. “Geruza” izenarekin bereizten ditugu, beraz, garai ezberdin bakoitzean sortutako zein bertakotutako ezaugarri eta formak.

Geruza ezberdinak hizkuntzaren alor guztietan antzeman daitezke. Adibidez, fonetikan geruza bi ditugu gaurko euskararen neutraltzeei dagokienez: txistukarietan *gazi* geruza zaharrekoa litzateke, txistukaria neutraldu aurrekoa, oposaketa mantentzen den bokal arteko testuinguruan dagoelako; *gatz*-en, aldiz, hitz bukaeran neutraldu ondoko emaitza genuke. Halaber, dardarkariak bukaeran neutraldu direnez gero, guk ez dugu bereizten *uR* vs. *ur* ahoskatzerakoan, nahiz erronkariarrek ba omen zekiten bereizten, baina bereizketa-geruzako aztarna dugu oraindik mugatuak direnean: *urra* vs. *ura*. Dena dela, gure gaurko sisteman badira geruza bi horien aztarna ezkutuxeagoak: nolakoa zen *bihar*-en txistukaria? Ez, noski, *biharretik biharrera* bezalako esapide modernoek diruditen bezalakoa, ezpada *biharamun* aspaldiko hitz elkartuan bokal artean ageri zaiguna (a):

biharamun < **biharebun* < **bihar* + *egun*

Beste adibide bat. Norbaitek jakin nahiko balu Heg. *hiru, lau* / Ip. *hirur, laur* formen artean zein den zaharrena, aintzat hartu beharko luke Euskal Herri osoan *r* hori agertzen dela nominatiboaz gainerako kasuetan: *hirurek, hiruretan, laurek, lauretan...*¹⁹

Gauza bera dakusgu morfologian. Erro Monosilabikoaren Teoriatik erator daitezkeen ondorioetako bat da gaurko euskal lexikoan hamaika geruza ezberdinetako hitz multzoak ditugula. Lehen begiratu arin batean, bistan da *zezen* eta *labur* bezakaloak *ikuzgailu* eta *herstura* bezalakoak baino zaharragoak direla teoria horren arabera, aurrekoak bisilaboak baitira, eta ondokoak bi silabatik gorakoak. Teoria berak aurreikusten du AEM-n hedatuz joan ziren bisilaboen artean ere geruza ezberdinetako gertakariak aurki ditzakegula: besteak beste, definizioz CVC eta CVCVC erroak edozein CVCV baino zaharragoak izango direla. Polikiago begiratuta, lau geruza garbi bereiz ditzakegu: (a) erreduplikazio geruza, antzinatik emankorra ez den prozedura batez mintzo zaiguna; (b) CVCVC geruza zaharra, aurrizkibidea emankorra zen antzinako garaikoa; (c) CVCCVC geruza, bi CVC erroren elkarketaz sortua; eta (d) CVC-V edo CV(C)-CV gisa analizatu beharrekoak diren bisilaboak, modernoena den atzizki garaikoa:²⁰

- (a) *gogor, zezen, adar*
- (b) *lagun, gibel, samur*
- (c) *harbel, gordin, zaldun*
- (d) *gazi, atze, jale*

Orain arte garai ezberdinetan euskarak berak garatu dituen forma berriak aztertu baditugu ere, maileguetan ere azter ditzakegu geruza ezberdinak. Mailegu geruzak mundu osoko hizkuntzetan topatu dira, garai ezberdinetan ukipenean hizkuntza ezberdinekin egon diren heinean, edota hizkuntza beraren egoera ezberdinekin. Bigarrena da guretzat jakingarriagoa, identifika ditzakegun euskal mailegu (ia) guztiak hizkuntza beraren —latinaren— egoera ezberdinetatik baitatoz, hots, latinetik bertatik edo “erromantze” deitzen dugun haren geroko bilakabidearen ondorioetakoren batetik (gaztelaniatik, gaskoitik, etab.).

Adibidez, hausa hizkuntzak²¹ arabieratik hainbat eta hainbat mailegu hartu ditu, baina ez dira dena berdinak, Greenberg-ek (1947) erakutsi zuenez; aitzitik, bi geruza ditu oro har, zaharra eta berria: bata arabiera herrikoa du iturri (AH), eta besteak arabiera klasikoa (AK). Euren bilakabide fonetikoagatik bereizten dira: AH-ko maileguek aldaketa fonetiko asko jasan dituzte eta AK-koek arabierazko hotsen bilakabide erregularragoak izan dituzte (hots, kontserbatzaileagoak dira). Euren gai edo alor ezberdinengatik ere bereizten dira: AH-ko maileguetan eguneroko bizitzako hitzak biltzen dira (salerosketak, teknologia, islamaren oinarriak) eta AK-koek antroponimoak (Koraneak) eta erlijiozko zein zientzia-tekniketako alor zailenetako terminoak. AH-ko maileguak Afrikako iparraldetik eta Sudanetik letozke, Greenberg-en arabera, hausa eskualdea islamiartzen hasi zenean gunek horiek izan zuten garrantziarekin bat; edonola ere, hausa etniakoen artean talde ikasi bat sortu aurretikoak.

Euskaraz ere neurri batean antzeman errazak dira mailegu geruzak. Mitxelenaren “paradoxara” itzuli gaitezke, hots, itxuraz (baina itxuraz bakarrik) kontrajarriak diren haren bi zehaztapenera:

Si nos atenemos a los criterios formales, los más fáciles de aplicar objetivamente, han de tenerse presentes dos aspectos, contradictorios a primera vista: en términos generales, los préstamos serán tanto más antiguos cuanto mejor conserven su aspecto original y, a la vez, cuanto más lo hayan modificado. Serán antiguos, en otras palabras, en la medida en que no muestren señales de los cambios fonéticos que se han realizado en los romances vecinos, pero también en la medida en que

¹⁹ Jakina, *seiretan, zazpiretan, zortziretan*, eta abarrak bion ereduaren analogiazko hedaturari zor zaizkio, eta ez besteri.

²⁰ *Gaz-i* eta *ja(n)-le* [CVC + atzizkia] garbiak dira; *atze*, berriz, berranalisiari zor zaio: *atz-e-an, atz-e-tik, atz-e-ra* zena (< *(h)atz* ‘aztarna’), *atze-an, atze-tik, atze-ra* gisa berranalizatuak izan ziren, *atze* erro berri bat sorturik.

²¹ “[Hausa] is (...) spoken as a first language by [about 35 million people, and as a second language by 15 million in Nigeria, and millions more in other countries, for a total of at least 50 million speakers. Originally the language of the Hausa people stretching across southern Niger and northern Nigeria, it has developed into a *lingua franca* across much of western Africa for purposes of trade” (*Wikipedia*).

han participado de otros, propios del vasco mismo, ya que esta participación es la mejor prueba de que se habían incorporado al léxico de la lengua antes de su cumplimiento. Unos y otros, sin embargo, pueden coincidir alguna vez y también sucede que la configuración fónica del préstamo, poco característica, no alcance a dar luz acerca de la fecha de su introducción (Mitxelena 1974: 185-186).

Alegia, latinetik datorren hitz batek bi ibilbide egin ahal izan ditu aldi berean: latinaren garapenaren ibilbidea, batetik, latinetik gaurko erromantze ezberdinetara daramana; bestetik, euskal mailegu gisa. Euskal maileguak ez dira denak garai berekoak, baizik eta oso garai ezberdinetakoak, latina hemendik lehenengoz entzun zen garaitik hasi eta gaur arte etengabe sartuz joan baitira. Nola bereizten dira, bada? Maileguak (1) zaharrago eta jatorrizko formatik (latinetik) gertuago egongo dira eta (2) zaharrago eta (euskararen barruan) aldatuago. Beste era batera esanda, latin garaian sartu maileguk ez dituzte pairatu “aldaketa erromantzeak”, hauek gertatu baino lehenago mailegatuak baititugu euskaraz. Esate baterako, eus. *gerezia* bistan da latin garaian hartua dela, erromantze goiztarrean *ke* palataldu eta txistukari afrikatuaz (*tze) ordezkatu baino lehenagokoa, eta gaztelaniaz azkenik *ce* /θe/ bihurtu baino askozaz lehenagokoa:

eusk. *gerezia* < lat. *ceresia* /ke-/ > gazt. *cereza* /θe-/

Honekin batera, latin garaian sartu maileguk, euskal lexikoaren partaide bihurtu zirenez gero, ordutik aurrera gertatu diren “euskal aldaketak” jasan dituzte: lat. *ceresia* euskaraz **hartu eta gero** euskaraz hitz hasierako *k* ahula (goxoa) > *g* aldaketa gertatu zen hitz hasieran.

Ondorioz, *gerezia* zaharra da latinezko herskaria gorde duelako (vs. erromantzeko bilakabidea, hasieran txistukari afrikatu batetik igaro zena eta gero erromantze bakoitzean bilakabide ezberdin bat, gaztelaniaz /θ/ eman duena azkenik) eta euskararen bereizgarri den hitz hasierako herskari ahoskabeen ahostuntzea jasan duelako. Gaztelania modernotik hartu izan bagenu, oso itxura ezberdina izango luke: ***zereza* edo, zehazki.

Gertakari hau bereziki gardena da latinezko hitz beraren bi forma ditugunean euskaraz, hala nola *begiratu/bijilatu* bikotean. Mitxelenaren “paradoxa” delakoaren arabera, ez dago dudarik zein den bietan zaharrena; izan ere, *begiratu*-k era bateko baino gehiagotako aldaketa nabarmenak jasan ditu, *bijilatu*-k ez bezala. Hona lat. *vigilare*-k euskaraz sartzeko ibili dituen bi lerro edo errai ezberdinak, bata zuzena eta zaharra (lat. *vigilare* → eus. *begiratu*) eta bestea zeharkakoa eta oso modernoa (lat. *vigilare* → gazt. *vigilar* → eus. *bijilatu*):

	lat. <i>vigilare</i>	
	eus.	gast.
1. geruza	* <i>bijilatu</i>	<i>velar</i> herrikoa (garapen erregularrekoa)
	* <i>bigiratu</i> (<i>l > r / V — V</i>)	
	* <i>begiratu</i> (herri-etimologiak <i>begi</i> -rekin lotu) (1545)	
2. geruza	<i>bijilatu</i> / <i>bixi</i> -/ (c. 1870) (<i>OEH</i> , s.v.)	<i>vigilar</i> / <i>bixi</i> -/ kultismoa (1739) (Corominas 1976, s.v. <i>velar</i>)

Begiratu-k latinezko /g/ herskari belarra gorde du (“zaharrago eta jatorrizko formatik gertuago”) eta, horrezaz gain, euskal lexikoan sartu ondoren “euskal aldaketa” zahar erregularretako bat jasan du —*l* ahula *r* bihurtu bokal artean— (“zaharrago eta aldatuago”), ondare zaharreko hitzek bezalaxe (gogora **sali* > *sari* vs. *sald*, adibidez), hots-aldaketa erregularrek ez baitute pasaportetik eskatzen —hots, hitzaren etorkia zein den eta horren arabera jokatzeko, baizik eta unean uneko lexikoan dauden hitzak oro ukitzen. Areago, *i* > *e* aldaketa (**bigi*- > *begi*-) erregularra ez izanik, suposatu behar dugu erregular ez den eraginaren bat izan

dela tartean; zehazki, *begi*-rekiko herri-etimologia genuke eragilea, forma kidetasunak ez ezik semantika hurbiltasunak ere lagundua.²²

Jatorri ezberdineko maileguen artean ere aise suma daitezke bi geruzak: adibidez, alde batetik *harea* (< lat. *arena*) eta *balea* (< lat. *ballaena*) ditugu, eta bestetik *bentana* eta *dozena*; lehenengo bietan bokal arteko *n* ahula hasperen bihurtzera eta gero desagertzera eraman zuen ibilbide zaharra dugu islatua, baina beste bietan ez da horrelakorik gertatu: honek esaten digu, duda izpirik gabe, *bentana* eta *dozena* $n > \emptyset$ aldaketa euskaraz indarrean egoteari utzi ondoko maileguak direla, aski modernoak alegia. Gaztelaniaren historiak ere erakusten digu mailegu modernoak direla: gazt. *ventana* (c. 1400) lat. *ventu(m)*-en nolabaiteko eratorri berankorra da (cf. Corominas 1976, s.v.); gazt. *docena* (1495) bere aldetik *doce*-ren eratorria da, eta hau lat. *duodeci(m)* ‘hamabigarrena’ hitzetik dator. Nolanahi ere, garai zaharretik etortzekotan eus. ***bendaa* edo izango genuen ($nt > nd$ aldaketa ere tartean) eta ***dodekea* edo auskalo (herskariak bere horretan gordeta, alegia).

Gogoeta hauek lagungarri izan daitezke mailegu ilunak identifikatzerakoan ere. Lakarrak (2005) azkenik ere frogatu zuen *zemai* eta *abagadaune* hitzak, Mitxelena (1964: *OOCC* IV, 55-56) arrazoi formalengatik mailegutzat eman zituenak —zehazki espero zuen hitz egituraz bestelakoak izateagatik (cf. 4. gaian § 2.4.2 eta 5. gaian § 2)—, egiatan mailegu zirela eta nolatan. Hauxe dateke *zemai*-ren etimologia:²³

gazt. *menaza* > eus. **mezana* (metatesiz) > **zemana* (metatesiz) > *zemai* ($n > \emptyset / V - V$)

Etimologia honek ez du interes berezirik guretzat, baina bai *zemai* mailegua dela frogatzeko Lakarra geruzetan oinarritu izana. Haren argudiaketa ulertzeko gogoan izan behar dugu hizkera batean geruza ezberdinetako hitzak elkarrekin bizi daitezkeela (*begiratu* eta *bijilatu*, kasu), baina ez geruza berekoak: hizkera batzuetan *leiho* eta *bentana* elkarrekin bizi dira,²⁴ baina nekez pentsa daiteke hizkera berean *leiho* eta *lexo* edo *bentana* eta ***bendana* aldaerak elkarrekin bizitzea, hizkera bakoitzean hitz bakoitzak (ondare zaharrekoa izan, mailegua izan) bere ibilbidea izan duelako (fonetikoa, besteak beste).

Hala bada, euskalkietan sakabanatuta ditugu latin arrunteko *menacia* eta *menaciare* hitzen ondoren ezberdinak bi taldetan bana daitezke edo, hemengo terminologia berreskuraturik, bi geruzatan: (a) *a*-gabekoak (fr. *menace* eta gazt. zah. *menaza* bezala; cf. okz. *menaçer* ere) eta (b) *a*-dunak (gazt. *amenaza* bezala):

(a) *mehatxu* (L, B, BN, S; Leiz, 1571), *beaza* (Lcc, 1562), *zemai* (V-ger-ple-arr-oroz-m; Kap, 1656)

(b) *amenazu* (*BBizk*, c. 1688; *amenaza* OA 1713, Astar, Lard...)

Iparraldeko aldaera alde batera utzirik,²⁵ Hegoaldekoetan ez dago dudarik zein den geruza zaharrena: izan ere, XV. mende bukaera arte (cf. CORDE) gaztelaniaz ere *menaza* aurkitzen da, baina azkenean *a*- preposizioa-edo atxiki duen forma gailendu da hizkuntza honetan: *beaza*, beraz, gaztelaniak *amenaza* hobetsi baino lehenagokoa da (“zaharrago eta jatorrizko formatik gertuago”), gazt. *menaza* euskararen barruan disimilatu ($m > b / - VnV$) eta gero $n > \emptyset$ aldaketaz garatutako forma (“zaharrago eta aldatuago”).

²² “Herri-etimologiaz” hitz egiten dugu hiztunek paronimoak diren bi hitz elkarrekin lotu dituztenean, normalean semantikoki ere hurbiltasunen bat antzemanik, eta ustezko erlazio honengatik bi hitzetako baten esanahia edo ahoskera aldatu denean bestearekiko analogiaz.

²³ Metatesiaren zuribidea Mitxelena (1964) etimologia batean aurkitu zuen: izan ere, **eNala* / **eLana*-tik datozke hala mendebaldeko *elae/elai* nola erdi-ekialdeko *enara* (Lakarra 2005: 345).

²⁴ Adiera ezberdin banarekin, ostera, bigarrena lehio mota berezi bati bakarrik baitagokio (bestek *gezileiho*, *kuku-leiho* edo *itsu-leiho* deitzen diotenari, erdaraz *saetera* denari, besteak beste).

²⁵ Itxuraz, *mehatxu* *mehatxatu*-tik sortua litzateke atzeranzko eratorpenaz (cf. Urgell 2015). Atzeranzko eratorpenean, hiztunek hitza berranalizatzen dute eratorria bailitzan, ustezko atzizkia kendu eta aurrez existitzen ez zen oinarria “berreraikiat”, betiere hizkuntzan den eredu erregular baten arabera: hala bada, *mehatxu*-ren *-u* hori erromantzetik azaltzerik ez dagoenez, dakidalarik, pentsatu behar dugu *kontu/kontatu*, *siku/sikatu* ereduaren arabera sortua bide dela *mehatxatu*-tik. Azalpen bera eman beharko *amenazu*-ri ere, jakina.

Lakarrak (2005) azpimarratu du *a*-dun mailegu berriak (*amenazu*, etab.) bizi diren eskualdeetan *zemai* ere aurkitzen dela, baina ez dela *zemai* sekula aurkituko *beaza*-rekin edo batera; arrazoia litzateke *beaza* eta *zemai* mailegu etorki (eta, beraz, geruza) berekoak izanik — gazt. zah. *menaza*-ren ondorengoak— hitz honek hizkera ezberdinetan izan duen bilakabide (fonetiko) ezberdinaren lekuko direla:

1. geruza	gazt. <i>menaza</i>	> eus. * <i>menaza</i>	A hizkeran	> * <i>benaza</i> > <i>beaza</i>
			B hizkeran	> * <i>mezana</i> > * <i>zimana</i> > <i>zemai</i>
2. geruza	gazt. <i>amenaza</i> , <i>amenazar</i>	> eus. <i>amenaza</i> , <i>amenazatu</i> , <i>amenazu</i>		

Beraz, *zemai* eta *amenazu* elkarrekin bizi ahal izan dira hizkera batzuetan, *begiratu* eta *bijilatu* bezala, geruza ezberdineko maileguak direlako, bata agian XV. mendea baino lehenagokoa, eta bestea dudarik gabe XV. mendea baino beranduagokoa.

Oro har mailegu zaharrak (latin garaikoak) eta berriak (erromantze garaikoak) aski ondo bereiz daitezke, batzuek eta besteek oso itxura ezberdina dutelako, salbu eta itxura aldaketarik jasateko motiborik izan ez dutenak —gorago Mitxelenak gogoratu bezala. Hona hemen batzuk eta besteak bereizteko darabiltzagun ezaugarri ohikoenak:

ZAHARRAK	BERRIAK
bokalismo sardoa lat. <u>p</u> ice / eus. <u>b</u> ikhe / gazt. <u>p</u> ez	tinbre aldaketa <i>i, u</i> laburretan lat. ball <u>i</u> sta / eus. bale <u>z</u> ta / gazt. balle <u>z</u> ta lat. <u>t</u> urre / eus. <u>d</u> orre / gazt. <u>t</u> orre (vs. Albistu <u>r</u>)
-u lat. fic <u>u</u> / eus. bik <u>u</u> / gazt. higo	-o (-o/-u) lat. advent <u>u</u> / eus. abendu <u>-o</u> , joku <u>-o</u>
<i>muta cum liquida</i>-rik ez lat. ecc <u>e</u> sia / eus. e <u>l</u> eiza / gazt. ig <u>l</u> esia lat. <u>g</u> ranu / eus. <u>g</u> arau / gazt. <u>g</u> rano	C taldea gorde lat. <u>g</u> ratia / eus. <u>g</u> arazia / <u>g</u> razia lat. <u>b</u> laspemare / eus. <u>b</u> laspematu (1571) gazt., eus. <u>b</u> roma (1880)
horskari ahoskabeak V _ V lat. sap <u>p</u> ore / eus. zap <u>p</u> ore / gazt. sa <u>h</u> or	ahostunak (erromantzetik) lat. -a <u>t</u> u / eus. -a <u>d</u> u, -i <u>d</u> u / gazt. -a <u>d</u> o, -i <u>d</u> o
ahostunak hasieran lat. <u>p</u> ala / eus. <u>b</u> ara (1562) / gazt. <u>p</u> ala	ahoskabeak lat. / eus. <u>p</u> ala, <u>p</u> iper, <u>k</u> are...
belarea _ e, i lat. pa <u>ç</u> e / eus. ba <u>k</u> e / gazt. pa <u>z</u>	sabaikaria (erromantzetik) lat. <u>ç</u> aelu / eus. <u>z</u> eru / gazt. <u>ç</u> ielo
lat. s > z lat. corpu <u>s</u> / eus. gorpu <u>t</u> z / gazt. corpu <u>s</u> lat. paradi <u>ç</u> u / eus. baradi <u>z</u> u / gazt. parai <u>ç</u> o	lat./errom. s > s eus. parai <u>ç</u> u/-o, <u>ç</u> ekula, <u>ç</u> einale
lat. l, n > r, h (ø) lat. pa <u>l</u> a / eus. ba <u>r</u> a / gazt. pa <u>l</u> a lat. a <u>n</u> ate / eus. a <u>h</u> ate / gazt. a <u>n</u> ade	l, n > l, n eus. pa <u>l</u> a, ba <u>l</u> a, sa <u>l</u> a (= gazt.) eus. benta <u>n</u> a, doze <u>n</u> a (= gazt.)

Aldaketa hauek dagoeneko aski ongi ezagutzen ditugunez, zehaztapentxo bat baino ez: “bokalismo sardo” terminoa erabiltzen da sardinieran —gainerako erromantzeetan ez bezala— latinezko hamar bokalak, luze/labur oposaketaren arabera bereizten zirenak, oposaketa hori galdu eta bostetan gelditu baitira, euskaraz ere bezala. Nahiz eta gaztelaniak ere —erromantze gehienek ez bezala, gorago zehaztu dugunez— bost bokal baino ez izan, haren bilakabidea ez da “sardoa” izan, ondokoa baizik (bokal azentudunen bilakaeraz ari gara bakarrik):

Latín	ī	í	ē	é	ā	á	ó	ō	ú	ū
		/ \		/ \		/ \		/ \		
Castellano	i	e	ie	a	ue	o	u			

Beraz, ondo bereizten dira (a) lat. *e* eta *o* laburren gaztelaniazko eta euskarazko bilakabideak eta (b) *i* eta *u* laburrenak:

(a) lat. *tempora*, *certu*, *fortis* > gazt. *tiempo*, *cierto*, *fuerte* vs. eus. *denbora*, *gertu*, *bortitz*

(b) lat. *pice*, *lucru*, *furca* > gazt. *pez*, *logro*, *horca* vs. eus. *bike*, *lukuru*, *urka*

3. Aldaketen kronologia

Aurreko atalean ikusi ahal izan dugu batez ere Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca*-tik aurrera gauza garela maileguetan geruza ezberdinak bereizteko; gaingiroki, hiru mailegu geruza ageri zaizkigu:

1. Latin garaikoa: eus. *bake* eta *gauza*-n ageri diren lat. *p-*, *t-*, *k-* > eus. *b-*, *d-*, *g-* hitz hasierako ahosuntzeak eta lat. *s* > eus. *z* egokitasunak salatzen dutena (cf. ezaugarri zaharren zerrenda gorago).
2. Erromantze goiztarrekoa: eus. *zeru*-n dugun hitz hasierako txistukariak salatzen du erromantzeak eratzen zihoazten garaikoa dela, bestela ****geru** emango baitzuen lat. *coelu(m)*-ek.
3. Erromantze berrikoa: eus. *klase*, *broma*, *prosa* bezalakoetako *muta cum liquida* taldeak salatzen du oso modernoak direla, duela erlatiboki gutxi arte horrelako talderik ez baitzen onartzen (cf. *liburu*, *garazia*, *eleiza*, etab.).

Alabaina, aldaketa mordoxka hori ez bide zen aldi berean gertatu, baizik eta batzuko lehenago eta besteak beranduago. Mitxelenak maileguen bitartez AEM-ko gertakariak aztertzeke eta berreraiketan atzera egiteko modua aurkitu zuen modutsuan, mailegu geruzak xehekiago bereiziz aldaketak kronologikoki ordenatzeko modua bilatzeko ordua da, ez maileguetan bakarrik, jakina, baita —eta batez ere— ondare zaharreko hitzetan ere.

Kronologiak zehatzak edo erlatiboak izan daitezke. Kronologia zehatza data emateko modua bilatzen dugunean baino ez dugu lortzen, baina hau biziki zaila izaten da, batez ere lekukotasun urri eta berankorrek baino ez dituen euskara bezalako hizkuntza batean. Kronologia zehatza ezin denean, bada, gutxienez erlatiboa egin daiteke, hau da, zer zer baino lehenago gertatu den. Adibidez, latinetik gaztelaniara bidean bi hots-aldaketa deskriba daitezke: lat. *geminatuak* soildu dira eta lat. *soilak* ahostundu; bada, aldaketa bion arteko kronologia erlatiboa honela ezarri behar da:

1. ahoskabe soilak ahostundu: lat. *ripa* > gazt. *riba*
2. *geminatuak* soildu: lat. *cappa* > gazt. *capa*

Arrazoa gardena da: arauak alderantziz ordenatuz gero, lat. *cappa* > gazt. *capa* > ****caba** gertatuko zen, alegia, *p* guztiak ahostunduko baitziren, hala lat. *p*-tik datozenak nola lat. *pp*-tik datozenak; hau gertatu ez denez, hurrenkera goikoa dela erabaki behar dugu, hots, lat. *p* guztiak *b* bihurtu ondoren eta ondoren bakarrik soildu zirela lat. *pp* guztiak.

Euskaraz ere badugu kronologia erlatiboen adibide franko. Ezagunenetakoa izan daiteke zubererazko *o*, *u* eta *ü* bokalen artekoa:

1. *u* > *ü* eus. buru > bürü
3. *o* > *u* / — *n*# eus. gizon > gizun, ezkontu > ezküntü

Alderantziz ordenatuz gero, zubereraz ****gizün** eta ****ezküntü** izango genituzke, alegia, *u* guztiak *ü* bihurtuko ziren, hala *u*-tik datozenak nola *o*-tik datozenak; hau gertatu ez denez, ezinbestean esan behar dugu lehenik *u* guztiak (arau honen hertsapenak hertsapen; cf. *FHV* xxxx) *ü* bihurtu zirela, eta ondoren —eta ondoren bakarrik— *u* bihurtu zirela *n* aurreko *o*-ak.

Gauza bera dugu AE-ko albokari eta sudurkarien bilakabidean. Ikus dezagun albokariena, non argi ikusten baita alderantziz ordenatuz gero ****araba** eta ****irun** genukeela:

1. *l* > *r* eus. *sali > sari
2. *L* > *l* eus. *aLaba > alaba, *iLun > ilun

Kronologia proposamenak hizkuntzaren atal guztietan egin daitezke, hotsetatik hasi eta lexikoraino. Euskararen historian azkenotan gero eta proposamen gehiago egiten ari dira, nagusiki fonologiaren eta morfologiaren esparruan. Fonologian honako hauek bildu ditu Reguerok (2012):

- Guter (1989): “Elementos de cronología fonética del vascuence”
- M. Múgica (1996): “Notas de fonética histórica y toponimia 1. Sobre cronología de los cambios fonéticos”
- J. I. Hualde (2008): “Acentuación y cronología relativa en la lengua vasca”
- J. A. Lakarra (2009): “**h3* > *h1*, **h2* > *h1* eta horiei datzekien zenbait fenomeno”
- U. Reguero (2010): “Euskararen kronologia erlatiboa finkatzeko lehen hurbilketa”

Morfologiaren alorrean Trasken omenaldian (Lakarra & Hualde 2006) elkarrekin agertutako hiru proposamen bildu ditu:

- Urgell (2006) “Para la historia del sustantivo verbal en vasco”, banaketa dialektalean oinarrituta aditzizenaren alomorfoen kronologia erlatiboa eratzeko saioa.
- Manterola (2006) “-*a euskal artikulu definituaren gainean zenbait ohar*”, artikuluaren sorreraren eta bilakabidearen kronologiaz.
- Mounole (2006) “Quelques remarques à propos de l'histoire des périphrases basques”, aditz perifrastikoen kronologiaz.

Guter (1989), euskara eragin duten hots-aldaketa zaharren kronologia zehatza ezartzeko lehen saioa, erabiliko dugu hori nola egiten den ikustearren, nahiz dudarik gabe saio honek zer zehaztu eta zer hobetu izango duen, bai erromanistikaren aldetik, bai euskalaritzaren aldetik (oharren bat egingo dugu alde honetatik), baita teoriaren aldetik ere, denboratxoa igaro da eta.

Guter-ek, euskaraz akitaniera garaitik aurrera gertatutako bilakabideen hurrenkera ezarri nahiz, Straka-ren (1953 eta 1956) lanetako kronologia erromantzea aintzat hartu zuen, hots, berriro ere, lehenago Martinetek eta Mitxelenak bezala, maileguak oinarri sendo gisa ez ezik, nolabaiteko kronologiara heltzeko bitarteko ezinutzizko gisara baliatu zituen. Izan ere, erromantze goiztarreko lekukotasunak erromanistek agian nahiko luketen bezainbeste ez balira ere, latinetik erromantze modernoetarainoko ibilbidea zirriborrazteko lain badira, baita kronologia zehatzak saiatzeko lain ere. Hala bada, latinetik erromantzeetarainoko bidea gertatutako aldaketen data (gutxi gorabehera) zehatzak izanik, Guter-ek maileguak euskaraz noiz hartuak diren eta euskal lexikoaren parte bihurtu ondoren zein “euskal aldaketa” jasan dituzten zehaztu eta ondoko kronologia eratu zuen:²⁶

²⁶ Berak <nn> eta <ll> erabiltzen ditu, /N/ eta /L/-ren ordez. Taulan grafiak fonemekin ordezkatu ditut, nahasketa saihesteko.

200	250		300		400		1000		1100
p- > b-						l > r			L > l
t- > d-	mb > m	mp > mb	1. n > ø	nt > nd				N > n	
k- > g-			2. nd > n						

Aldaketen hurrenkera eta kronologia nola erabakitzen duen ikusteko berebizikoa da *tipula*-ren adibidea, ematen dituenetan osoena edo, hainbat hots-aldaketa ezberdin inplikatzan dituelako. Eus. *tipula* lat. *caepulla*-tik dator, eta gazt. *cebolla*-tik ondo ezberdina da (frantsesez etorki ezberdineko *oignon* erabiltzen da). Noizko hitza dugu euskaraz *tipula*, beraz?

Lehenik har dezakegu aintzat lat. /ke-/tik ez genuela zuzenean hartu, bestela **gepula* genuke eta (cf. lat. *cella* > eus. *gela*), ezta gazt. *ce*-tik, bestela **ze*-genuke eta (cf. gazt. *celo* > eus. *zelo*). Tarteko garai batekoa da, bada, eta zehatzagoak izan gaitzke, erromantzezko bilakabidea aski ondo ezagutzen baita: (1) lehenik *e, i* aurreko lat. /k/ palataldu omen zen K.o. 200. urtearen bueltan; (2) gero horzkaritu 250. urtearen bueltan; eta azkenik (3) afrikatu, txistukari edo txitxekari bat eman; azken urrats hau Dacia (gaurko Errumania eta Moldavia) Erromako Inperiotik banatu baino lehen gertatu omen zen, hots, 271. urtea baino lehen:²⁷

- | | |
|---|-----------------|
| 1) /k/ > /kj/ | ~ 200 |
| 2) /kj/ > /tj/ | ~ 250 |
| 3) /tj/ > afrikatu txistukari edo txitxekaria | 271 baino lehen |

Honek **ante quem-eko data** eskaintzen digu, hau da, zerbait zer baino lehenago gertatu den adierazten duen data, zeren eta euskaraz *t*-hasiera izateko, hain juxtu /tj/ garaian hartua dela pentsatu behar baitugu. Hipotesi honekin ondo dator lat. *u* eta bokal arteko herskari ahoskabea euskaraz gorde izana, euskal formak jasan ez dituen aldaketa erromantzeak hurrenez hurren 300. eta 400. urteen bueltan gertatu baitziren:

bokal tinbrea gorde (vs. gazt. *cebolla*) [- lat. *u* > errom. *o*] (300)

herskaria ahoskabe gorde (vs. gazt. *cebolla*) [- lat. *p* > errom. *b*] (400)

Gehiago ere zehatz daiteke, argudio ezberdinak erabiliz Guterrek (1989: 798-799) ezartzen baitu hitz hasierako ahoskabeen ahostuntzea K.o. III. mendearen hasieran izan zela. *Tipula*-n gertatu ez denez (hots, **dipula*-rik ez denez),²⁸ ondoriozta daiteke mailegu hau euskaraz K.o. 250-270 artean hartua izan zela, mende laurden bateko gorabeherarekin, beraz.

Gainerako euskal aldaketen datak ere erromantzezko gertakariak aintzat harturik ondorioztatu ditu Guter-ek; hala, adibidez, *mb* > *m* aldaketa 300. urtea baino lehen (= b.l.) gertatutakotzat jotzen du, urte horren bueltan gertatu omen baitzen lat. *u* > errom. *o* aldaketa, eta eus. *imutu*-k lehena jasan du, baina ez bigarrena:

eus. *mb* > *m* (300 b.l.)
imutu (< lat. *imbutu*) [- lat. *u* > errom. *o*] (300)

Proposamen honekin ondo datoz, berak aipatu ez arren, akitaniera garaian (K.o. I-III. mendeak) oinarritutako ondoko bi etimologia ezagunak:

*ombe > *umme > ume
 *sembe > seme

²⁷ 271. urtean Erromako Inperioaren mugak Danubioaren alde honetara atzera egiteko agindu zuen Aureliano enperadoreak, eta han bizi ziren Erromako hiritarrek han zeuzkaten lur jabetzak utzita alde honetara aldatzeko.

²⁸ Guter-en datu hau ez da erabat zehatza: Lakarrak gogoratu duenez (2012: 53, 88. oh.), Erdi Aroan bada *Pero Ochoa de Dipulatçe* (1350; Arzam 409, ap. *OEH*, s.v. *tipula*).

Aldiz, 300. urtea baino beranduago (= b.b.) gertatuko zen *nt > nd* aldaketa, aldaketa hori bai, baina baita lat. *-u > errom. -o* aldaketa ere jasan duten ondoko bi maileguen arabera:

eus. *nt > nd* (300 b.b.)
 eus. bor \bar{u} ndate (< lat. vol \bar{u} ntate)
 eus. send \bar{u} (< lat. exempt \bar{u})²⁹ [+ lat. *u > errom. o*] (300)

Euskaraz bokal arteko *l* ahula *r* noiz bihurtu zen jakiteko, mailegu bakoitzaren *a quo*-ko data (hots, noiztikako data) baino ezin dugu eman gehienetan, betiere Guiterren arabera:

eus. *l > r* (250 b.b.)
 eus. zer \bar{u} (< lat. cael \bar{u}) [+ lat. belar > errom. txist] (250 b.b.)
 eus. gur \bar{a} (< gul \bar{a}) [- lat. u > errom. o] (300 b.l.)
 eus. bor \bar{u} ndate (<lat. vol \bar{u} ntate) [+ lat. u > errom. o] (300 b.b.)
 [- lat t > errom. d / V — V] (400 b.l.)
 eus. kandela, kandra [- eus. *nt > nd*] (350. b.b.)

l > r aldaketa indarrean noiz arte egon zen jakitekotan, Guiter-ek *ad quem*-eko data (hots, bukaerako data) bezala XI. mendea proposatzen du, hau da, “cuando las *ll* geminadas empiezan a reducirse a *l* sencilla” edo, gure erara esanda eus. *L > l* aldaketa gertatzen hasi zenean, zeren eta —gorago azaldu dugunez— bestela *L > l > r* aldaketaren zantzuak izango baikenituzke. Guiter-ek, IV-XI. mendeen tartea zabalegia izanik Erdi Aroko onomastikara jotzen du zehaztapen gehiagoren bila: *Ulibarrilior* (952) eta *Hurizahar* (1025) erkatuz erabakitzen du *l > r* aldaketa 1000. urtearen bueltan gertatu bide zela.³⁰

Eta noiz gertatu zen *n > ø* aldaketa? *Kanpae* eta *katea* formak aintzat hartuz gero, 300. urtearen ondoren:

1. [- eus. hasierako ahostuntzea] (***ganpae*) (250 b.b.)
2. [- eus. *np > nb*] (300. b.b.)
3. [+ *n > ø*]

Kontu honetan, saio ezberdin bat egin du Lakarrak (2014: 193-194): baldin eta aitzingaskoiera definitzen duten aldaketak (tartean *n > ø / V — V*) 511. urterako eman badute adituek (Chambon & Greub 2002) eta baldin eta, Luchairek-eta nahi bezala, fenomeno hori euskal substratuari zor bazaio, pentsatu behar dugu sudurkariaren galera hizkuntza emalean hizkuntza hartzailean baino lehenago gertatu zela, hots, VI. mendea baino lehenago. Beraz, ez urrun Guiter-ek esandakotik.

Dena dela, hasieratik iradoki bezala, Guiter-ek ez du azken hitza esan, ez gai honen kronologian, ezta gainerakoetan ere, baina aldaketen datatzea eta euren arteko hurrenkera nola erabaki litekeen erakutsi bai, garbiki.

Bibliografia osagarria

- Alarcos Llorach, Emilio, 1981 [1950], *Fonología española*. Madril: Gredos.
- Arbelaitz, J. J., 1978, *Las etimologías vascas en la obra de Luis Michelena*. Gasteiz.
- Corominas, Joan, 1976, *Breve diccionario etimológico de la lengua castellana*. Madril: Gredos.
- Correa, J. A., 2004, “Elementos no indoeuropeos e indoeuropeos en la historia lingüística hispánica”. R. Cano Aguilar, *Historia de la lengua española*, Barcelona: Ariel: 35-57.
- Echenique, M.^a Teresa, 2004, “La lengua vasca en la historia lingüística hispánica”. R. Cano Aguilar, *Historia de la lengua española*, Barcelona: Ariel: 59-80.

²⁹ Etimologia hau berrikusi beharko litzateke, akitanierazko **sen* erroa (cf. *Sembe*, *Seni*, etab.) aintzat harturik.

³⁰ Adibide honek suposatzen du, jakina, eus. *uri* < **uli* berreraiki behar dela eta, hortaz, eus. *hiri* < **hili*.

- , 2005, “Consideraciones actuales en torno a la lengua vasca y su acción como sustrato-adstrato del castellano”, *Iberoromania* 62, 71-86.
- Ferrando, Antoni & Miquel Nicolás, 2011, *Història de la llengua catalana (Nova edició revisada i ampliada)*. Bartzelona: UOC.
- González Ollé, F., 1970, “Vascuence y romance en la historia lingüística de Navarra”, *Boletín de la RAE* 50: 31-76.
- Gorrochategui, Joaquín, 2012, “Euskaratiko osagaiak gaztelaniaren lexikoan”. I. Igartua, *Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza: 103-150.
- Greenberg, Joseph, 1947, “Arabic loan words in Hausa”, *Word* 3: 85-97.
- Lakarra, Joseba A., 2005, “Zemai abagadaune”. P. Etxeberria & H. Knörr, *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia*, Iker 17. Bilbo: Euskaltzaindia, 339-351.
- , 2012, “Mailegaketa eta berreraiketa euskararen historiaurrearen ikerketan”. I. Igartua, *Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza: 17-74.
- , 2015, “Hiru hasperen haboro”. M. J. Ezeizabarrena & R. Gómez, *Eridenen du zerzaz kontenta: Sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, Gasteiz: UPV/EHU: 349-378.
- Lakarra, Joseba A. & Jose Ignacio Hualde, Eds., 2006, *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R. L. Trask - R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz*. Bilbo: UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Lapesa, Rafael, 1984, *Historia de la lengua española*, Madril. [9. arg. zuzendu eta emendatua].
- Menéndez Pidal, Ramón (1926, 1950³), *Orígenes del español. Estado lingüístico de la Península Ibérica hasta el siglo XI*, Madrid: Espasa-Calpe.
- Mitxelena, Koldo, 1964, *Sobre el pasado de la lengua vasca*. Donostia: Auñamendi.
- , 1970, *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue*. Bilbo: Centro de Estudios Históricos de Vizcaya.
- , 1974, “El elemento latino-románico en la lengua vasca”, *FLV* 6: 183-209.
- Oñederra, M. Lourdes, 2004, “El español en contacto con otras lenguas: español-vasco”. R. Cano Aguilar, *Historia de la lengua española*, Bartzelona: Ariel: 1103-1117.
- Pensado, Carmen, 1983, *El orden histórico de los procesos fonológicos*. Salamanca: Caja de Ahorros eta M.P. de Salamanca.
- Ramos Remedios, Emiliana, 2000, *Los Cartularios de Santa María de Valpuesta, Análisis Lingüístico*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- , 2010, “Aportaciones del análisis antropónimo al área vasco-románica (siglos IX-XII). La documentación de Santa María de Valpuesta”, *RIEV* 55-2: 499-566.
- Reguero, Urtzi, 2010, “Euskararen kronologia erlatiboa finkatzeko lehen hurbilketa”, <http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/docs/00/49/29/26/PDF/Euskararen_kronologia_erlatiboa_finkatzeko_lehen_hurbilketa.pdf>.
- , 2012, *Erdi Aroko euskara: dialektalizazioaren hastapenatarantz*: UPV/EHUko MALa.
- Rohlfs, Gerhard, 1977 [1935], *Le gascon. Études de philologie preneenne*, [Troisième édition, augmentée]. Tübingen-Pau: Max Niemeyer- Éd. Marrimpouey Jeune.
- Straka, Georges, 1953, “Observations sur la chronologie et les dates de quelques modifications phonétiques en roman et en français pré-littéraire”, *Revue des langues romanes* 71: 248-307.
- , 1956, “La dislocation linguistique de la Romania et la formation des langues romanes a la lumiere de la chronologie relative des changements phonétiques”, *Revue de Linguistique Romane* 20: 249-267.
- Trask, Larry R., 1997, *The History of Basque*. Londres: Routledge.
- Urgell, Blanca, 2015, “Atzeranzko eratorpena eta erroaren berreraiketa Larramendiren hiztegian”. G. Aurrekoetxea & P. Salaberri Muñoa (arg.), [izengabea oraingoz], Gasteiz: UPV/EHU (argitaratzeko).

Veny, Joan & Mar Massanell, 2015, *Dialectologia catalana. Aproximació pràctica als parlars catalans*.
Bartzelona: Universitats de Barcelona, Alacant i València.